

Itunpeko Irakaskuntzako langileak gure eskubideen defentsan

Krisi garaian gaudela ezin ukatu! Gaur egun dugun krisirik larriena ordea, baloreen krisia da. Kapitalaren espekulazioa eta arduragabekeriak jarri gaitu egoera honetan. Krisia sortu dutenen aurka joan beharrean, langileon aurka jo dute bai gobernuek eta baita patronalek, kapitalari men eginez. Eusko Jaurlaritza zein Nafarroako Gobernuaren neurriak lotsagarriak izan dira eta horrela jarraitzeko asmoa dute. Neurri hauekin, zerbitzu publikoak desegin eta langileria disziplinatuta nahi dute. Gainera, hartutako neurriak, lan baldintzatik haratago doaz eta hemen ditugu erreforma laborala, pentsioen erreforma, negoziazio kolektiboaren erreforma eta beste hainbat neurri.

Krisiaren aitzakiarekin gastu soziala murriztuz doaz gobernuetako aurrekontuetan. Hori etxebizitzan, osasunean, prestazio sozialetan... eta nola ez, hezkuntzan ere gertatu da, bai Nafarroako Foru Erkidegoan baita Euskal Autonomia Erkidegoan ere. Hezkuntzako baliabideak eta aurrekontua gogor murriztu dituzte. Hori dela eta, langileok, baina baita ikasleak eta beraien familiak ere, krisiaren ondorioak bere gordintasunean sufritzen ari gara, gure eskubideak bortxatuak ikusten ditugu, gure lan baldintzak okertuak eta hezkuntza egoki baterako baliabideak murriztuak.

Hoy estamos aquí por los recortes, tanto salariales como de recursos que se nos han aplicado tanto en los centros de iniciativa social como en ikastolas en la CAPV. Las patronales pretenden que los trabajadores y trabajadoras renunciemos a nuestros derechos y asumamos con resignación los recortes salariales que nos han impuesto. Tenemos que denunciar la ilegalidad de la decisión, su unilateralidad, así como el ataque que esto supone a la negociación colectiva.

Soldata murrizketa hauek, gure ustez, legez kanpokoak dira. Bere ezarpena, argi eta garbi, negoziazioa kolektiboaren aurkako eraso da, eta bi aldeen arteko akordioa haustea dakar, alde bakarreko erabakia izan baita. Hau gutxi balitz, momentuz murrizketen zartakoa baretzeko eta langileria nahasteko intentzio nabariarekin, 2010ari dagokion %0,8ko ordainketa metatuaren soldata igoera aplikatzen hasi dira. Igoera mota hauek aplikatzeko moduak lan hitzarmeneko komisioparekidean negoziatzen dira, baina kasu honetan, gizarte ekimeneko zein ikastoletako patronalek beraiek bakarrik erabaki dute nola aplikatu, langileen ordezkariarekin kontatu gabe eta bere interesei bakarrik erreparatu.

Es evidente que no se busca negociar con la representación de los trabajadores y trabajadoras, si no es para que éste sea mero espectador o para que valide las decisiones que se han adoptado contra nuestros intereses. Con medidas como esta del 0,8%, buscan maquillar temporalmente las nóminas y calmar nuestras reivindicaciones, pero debemos tener claro que los recortes se mantienen y no existe

voluntad alguna de no aplicarlos. La subida del 0,8% además, puede tener efectos perversos para el futuro de la negociación colectiva.

Eusko Jaurlaritzak orain arte defendatu duenaren kontra, argi utzi du 2011. urtean deskontua hilabete guztietan emango dela: ondorioz, 2011ko murrizketa ia 2010ekoaren bikoitza izango da. Gizarte ekimeneko zein ikastoletako patronalek murrizketa hauek zuzenean beraiengan eragina izatea saihestuko dute eta mimitikoki langileoi aplikatuko dizkigute, lan hitzarmena urratuz eta negoziazio kolektiborako gure eskubidea bortxatuz.

Esto no ha hecho más que empezar. Los recortes van a continuar y en el año 2011 van a aumentar. Nos piden que renunciemos a nuestra capacidad de negociación y aceptemos resignados tal situación, mientras nuestros derechos, nuestras condiciones laborales y nuestro poder adquisitivo retroceden cada vez más. Nuestras únicas herramientas para afrontar esta situación impuesta, son las denuncias por incumplimiento de convenio a través del conflicto colectivo, las reclamaciones de las cantidades que nos han sido quitadas y la acción sindical. Es por eso que hemos convocado esta manifestación, para que sepan que no nos vamos a quedar de brazos cruzados mientras nos quitan lo que es nuestro.

Geure burua errespetatu arazi behar dugu, gure interesen alde borrokatuz. Interes hauek defendatzeko gaude gaur hemen. Garbi eduki ezazue, langileon lan baldintzak defendatuz bakarrik bermatu dezakegula kalitateko zerbitzu bat. Erreflexio honek arlo guztietan balio du, baita irakaskuntzan ere. Ez dugu, ez gobernuen eskutik ezta itunpeko irakaskuntzako patronalen eskutik ere, murrizketarik onartuko, gure lan baldintzak eta eskubideak urte luzeetako borrokaren fruitu direlako, gure haur eta gazteek, gurasoek eta gizarte osoak baliabide egokiz ornituriko kalitatezko hezkuntza behar duelako, pertsonen garapena eta aurkera berdintasuna bermatzeko ezinbesteko tresna delako. Ez dugu, beraz, murrizketarik onartuko, ez gaude prest inola ere, sortu ez dugun krisia ordaintzaeko.

Murrizketarik EZ!
Gora irakaskuntzako langileria!
Gora euskal langileria!

Bilbon 2010eko abenduaren 2an